


Aurkezpena

Bizitoki-aldaketak eta biztanleria atzerritarra



ikuspegi@k

Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EBHEHU ETA SOSAITE
POLITIKARIO BILA
Euzko Jaurlaritzaren
Gobernazio Departamentua
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES
Departamentuak: Euzko Jaurlaritzaren
y Gobernazio Departamentua



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Ondorio nagusiak

Zein izan da krisiaren eragina EAeko biztanleria atzerritarraren migrazio-dinamikan?

Krisi ekonomikoak EAeko migrazio dinamikan honetan inflexio puntu bat sortu du. 2011 urtean izandako gorakada txikiaren ondoren, 2012an biztanleria atzerritarraren migrazio-saldoa hazkunde ezara hurbildu da. Bestalde hazkunde honen zergatia Estatu barruan emandako barne-etorreretan datza soilik. Lehenengo aldiz kanpoko migrazio-saldoa negatiboa da.

Bertako biztanleriak nabarmen emigratzen al du atzerrira?

2006tik atzerrirako emigrazioaren gorakada gertatzen da. Hala ere, saldo negatiboa 2007tik aurrera ematen da, hots, krisiaren aurretik. Bestalde, Estatutik datorren bertako biztanleriaren etorrera areagotu egiten da, ondorioz eta lehen aldiz 2012an bertako biztanleriaren barne-migrazio-saldoa ematen da.

Nazionalitate berdineko biztanleak iristen dira oraindik ere?

2012an Magreb eta Sahara hegoaldeko kolektiboak dira migrazio saldo positiboari ekarpen handien egiten diotenak. Asiako kolektiboak ere hazkunde nabaria bizi izan du termino errelatibotan. Bestalde, Latinoamerikatik etorritakoen eragina saldo migratorio positiboan behera doan bitartean, Europako Ekialdeko kolektiboen saldoak negatiboak dira.

Atzerriko biztanleriaren nazionalitateek eragina al dute datuetan?

Estatuari dagokionez atzerrira jotzen duen bertako emigrazioaren %33a, atzerrian jaiotakoak dira. Aitzitik, atzerrira jotzen duen bertako emigrazioaren parte handi bat, espainiar nazionalitatea lortu duten atzerritarrak dira hain juxtu.

Migrazio-dinamikaren aldaketa: Krisi ekonomikoarekin biztanleria atzerritarren immigrazioak behera egiten du eta emigrazioak aldiz gora egiten du

Estatuan emandako kanpo migrazio-saldoa biztanleria atzerritarrean. 2003-2012


	Kanporako-migrazioak		Kanporako-saldoa
	Immigrazioa	Emigrazioa	
2003	429.524	9.969	419.555
2004	645.844	41.936	603.908
2005	682.711	48.721	633.990
2006	802.971	120.254	682.717
2007	920.534	198.974	721.560
2008	692.228	232.007	460.221
2009	469.342	288.269	181.073
2010	431.334	336.676	94.658
2011	416.282	317.699	98.583
2012	336.110	320.657	15.453

Iturria: EIN

- Estatua: 2012an biztanleria atzerritarren saldoa ia nulua da. 2007an saldo positiboa 721.560 atzerritarrena izan zen eta 2012an 15.453.
- Biztanleria atzerritarren kanporako emigrazioa egonkortu egiten da 2010tik aurrera 320.000 irteerekin gutxi-gora-behera.
- 2012an biztanleria atzerritarren etorrerak behera egiten du nabarmen.

(Balioespena) 2012an atzerrira jotzen zuen bertako biztanleriaren heren bat, berez, nazionalizatutako atzerritarrak edo emigrante espainolen senideak ziren.

.Estatuan jaiotako eta Atzerrian jaiotako biztanleriaren emigrazioaren eboluzioa 2003-2012



Iturria: EIN

- Geroz eta atzerritar gehiagok espainiar nazionalitatea lortzen dutenez, estatistikak desitxuratu egiten dira. Nazionalizatutako atzerritar bat bertakoa balitz bezala hartzen da estatistiketan.
- Nahiz eta bertako biztanleek geroz eta sarriago atzerrira jotzen duten, 2012an, talde horren herena atzerrian jaiotako bertako biztanleak ziren.
- Datu honen arabera, esan dezakegu heren bat nazionalizatutako atzerritarrak edo espainiar emigranteen senideak direla.

2012 migrazio aldaketa urtea EAEn: Atzerritar biztanleriaren saldo positiboa minimoetara murrizten da. Lehen aldiz, bertakoen migrazio-saldoa positiboa da.

Bertako biztanleria eta atzerriko biztanleriaren migrazio-fluxuak EAEn. 2002-2012

	Guztira			Biztanleria atzeritarra			Bertako biztanleria		
	Immigrazioa	Emigrazioa	Saldoa	Immigrazioa	Emigrazioa	Saldoa	Immigrazioa	Emigrazioa	Saldoa
2002	26.573	21.097	5.476	12.943	2.242	10.701	13.630	18.855	-5.225
2003	28.843	21.670	7.173	14.335	2.643	11.692	14.508	19.027	-4.519
2004	32.681	24.650	8.031	18.766	5.673	13.093	13.915	18.977	-5.062
2005	35.339	25.213	10.126	21.809	7.000	14.809	13.530	18.213	-4.683
2006	40.046	28.101	11.945	26.973	9.103	17.870	13.073	18.998	-5.925
2007	44.645	30.660	13.985	31.529	11.487	20.042	13.116	19.173	-6.057
2008	43.714	29.030	14.684	30.637	11.951	18.686	13.077	17.079	-4.002
2009	38.626	31.071	7.555	24.962	14.680	10.282	13.664	16.391	-2.727
2010	39.116	33.230	5.886	25.015	16.443	8.572	14.101	16.787	-2.686
2011	41.898	32.329	9.569	26.169	15.703	10.466	15.729	16.626	-897
2012	34.964	32.676	2.288	19.428	17.891	1.537	15.536	14.785	751

Iturria: EIN

- EAEko migrazio-saldoa murriztu egiten da 2.288 pertsonara iritsi arte eta zifrarik baxuenean kokatzen da 2002 geroztik.
- Atzerritar biztanleriaren migrazio-patroian eman den aldaketa nabaria da arrazoi nagusienetariko bat, immigrazioak behera egiten du eta emigrazioak aldiz, gora.
- Bertako biztanleriaren 751 pertsonen saldo positiboa oso datu esanguratsua da, ez bolumena beragatik, baizik eta adierazten duen migrazio aldaketa historikoagatik.

Bertako biztanleriaren atzerrira emigratzeko joera areagotu egiten da, baina zifrak baxuak dira oraindik ere.

	Immigrazioa	Emigrazioa	Saldoa
2002	1.538	1.586	-48
2003	1.633	1.118	515
2004	1.636	1.097	539
2005	1.557	1.206	351
2006	1.373	1.373	0
2007	1.262	1.696	-434
2008	1.258	1.852	-594
2009	590	1.832	-1.242
2010	1.254	1.775	-521
2011	1.425	2.300	-875
2012	1.400	2.132	-732

Iturria: EIN

- Bertako biztanleriak atzerrira emigratzeko duen joera areagotu egin da 2004 geroztik. 2012an atzerrira joan zirenak 2.132izan ziren, zifra eskasa datu orokorrekin konparatuz alegia.
- 2007 urtetik hona bertakoen saldoa kanpokoarekiko negatiboa da.
- Datuek adierazten dutenez, bertakoek atzerrira emigratzeko duten joera, gizarte eta komunikabideetan dagoen pertzepzioa baino dexente txikiagoa da.

Atzerritar biztanleriaren migrazio-patroiaren aldaketa 2012an: Estatuko beste erkidegoetatik etorritako atzerritarrak dira hazkundearen arrazoia. Lehen aldiz kanpoko saldoa negatiboa da.

Biztanleria atzerritarraren migrazio-fluxuak EAEn jatorri eta jomugaren arabera. 2002-2012

	Atzerritarra			AA.EE		
	Immigrazioa	Emigrazioa	Saldoa	Immigrazioa	Emigrazioa	Saldoa
2002	9.453	380	9.073	3.490	1.862	1.628
2003	10.052	472	9.580	4.283	2.171	2.112
2004	13.808	2.726	11.082	4.958	2.947	2.011
2005	16.811	3.329	13.482	4.998	3.671	1.327
2006	21.668	4.880	16.788	5.305	4.223	1.082
2007	24.299	6.071	18.228	7.230	5.416	1.814
2008	22.366	7.550	14.816	8.271	4.401	3.870
2009	16.375	10.059	6.316	8.587	4.621	3.966
2010	16.519	12.269	4.250	8.496	4.174	4.322
2011	16.953	11.289	5.664	9.216	4.414	4.802
2012	12.492	13.448	-956	6.936	4.443	2.493

Iturria: EIN

- Migrazio-patroian aldaketa sakona, 2012an eta lehen aldiz kanpoko saldoa negatiboa da 956 pertsonetan.
- 2012an saldo positiboa ematen da soilik, Estatuko beste erkidegoetatik etorritako biztanleria atzerritarrari esker.
- Edonola ere eta oro har, atzerritik datorren immigrazioa da biztanleria atzerritarraren immigrazio kuotarik altuena.
- 2012an beste erkidegoetatik etorritako immigrazioak, gehikuntza jarrai baten ondoren, beherakada nabaria jasaten du.
- Kanpotik etorritako immigrazioak ere behera egiten du eta 2003ko zifretan kokatzen da.

Aldaketa migrazio atzerritarren jatorrian: Afrika eta Latinoamerikak garrantzia irabazten dute, Afrikak aldiz protagonismoa galtzen du.

Biztanleria atzerritarraren migrazio-saldoaren eboluzioa eskualde eta jatorrizko herrialdearen arabera

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
EB 25	1.757	2.114	1.423	245	-610	167	-209
EB 27	2.492	4.003	1.857	601	854	1.240	-318
Gainerako Europa	477	683	513	328	286	261	91
Magreb	1.767	2.071	3.579	2.714	2.087	2.729	479
Gainerako Afrika	820	1.072	1.611	1.435	1.173	1.383	415
Latinoamerika	9.778	9.355	8.596	4.039	3.068	2.947	649
Txina	419	321	670	329	375	390	51
Gainerako Asia	360	423	437	591	1.339	1.348	379
Atzerritarrak	17.870	20.042	18.686	10.282	8.572	10.465	1.537

Iturria: EIN

- 2009 urtera arte latinoamerikako kontingentea nagusia zen migrazio-saldoan, baina 2010 geroztik Afrikako kolektiboak dira saldo positiboari pertsona gehien ekarri.
- 2010 geroztik Asiako kolektiboak ere indarra hartzen du, batez ere Txinaz gain bestelako nazionalitateek bizi duten migrazio-hazkundeagatik.
- Europako kolektiboetan, Errumania eta Bulgaria (EE-27) nagusiki, 2012an joera aldaketa nabaria ematen da, lehen aldiz migrazio saldo hau negatiboa da.



ikuspegi@k

Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
*Familia Politikarako eta Komunitate
Garapenerako Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES
*Dirección de Política Familiar
y Desarrollo Comunitario*